Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Margarita Ikobaltzeta Goiti

Mañaria, Bizkaia
(1934-2023)



Aurkibidea

Biografia



Arrueta auzoko Beaskoa baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da ordudanik. Gurasoak ere Mañarikoak zituen; aita bere jaiotetxe berekoa eta ama Iturrietakoa. Umetan 12 urtera arte eskolara joan zen. Josten ikasten ibili ostean, 19 urtegaz neskame joan zen Durangoko etxe batera. Gazterik hasi zen ardiak zaintzen eta gazta egiten.

Zintak

MAN-022

- **Proiektua**: Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-04-11
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

MAN-023

- **Proiektua**: Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-04-11
- **Iraupena**: 20 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

MAN-027

- **Proiektua**: Mañariko grabazio zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez de Audikana, Maria Luisa - Ikobaltzeta, Igone
- **Data**: 2008-09-07
- **Iraupena**: 73 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Ikobaltzeta, Igone

MAN-028

- **Proiektua**: Mañariko grabazio zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez de Audikana, Maria Luisa - Ikobaltzeta, Igone
- **Data**: 2008-09-07
- **Iraupena**: 91 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Ikobaltzeta, Igone

Pasarteak

1. Eskola

- **Erref**: MAN-022/002
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:01:46. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
7 urtegaz hasi zen eskolara, berandu. Baserritik kalera eta kaletik etxerako bidea zen eguneroko ibilaldia. Gaztetan inguruko erromerietara joaten ziren. Maisu-maistrak erdaldunak ziren eta beraiek askorik jakin ez arren egin beharra zuten. Eskolan pizarrina, koadernoa eta lapitza erabiltzen zuten. Boligraforik ez zuten, tintadun luma baizik. Paulita eta doña Atanasia maistrak izan zituen.

2. Josten ikasten

- **Erref**: MAN-022/005
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:13:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Ardiekin mendira joan arren, mezara joan beharra zegoen. Eskolan 12 urtera arte joan zen, ahizpa jaio arte. Josten ikasi ostean, 19 urtegaz Durangora joan zen neskame. Mañarian bertan, kalean, josten ikasteko aukera zegoen. Denetarik ikasi zuten josten; hala ere, makinaz etxean ikasi zuen. Gerora, jostun lanetan aritu zen pixka batean.

3. Artilezko galtzak

- **Erref**: MAN-022/007
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:15:29. **Bukatu**: 00:18:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Artilearekin galtzak egiten zituen. Artilearekin haria egiteko prozesua eta galtzak zelan egiten ziren azaltzen du. Etxerako baino ez zuten egiten.

4. Artilea zelan garbitu eta landu

- **Erref**: MAN-022/010
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:18:58. **Bukatu**: 00:19:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Artilea xaboiarekin garbitzen zuten. Zelan garbitzen eta lantzen zuten azaltzen du. Etxean ez zutenez urik errekara joan behar izaten ziren.

5. Artilea saldu

- **Erref**: MAN-022/011
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:21:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Artilea saldu egiten zuten. Ardi asko zegoen, Mañarian ia etxe denetan. Diru asko ez zuten jasoko, baia zegoenarekin konformatu.

6. Aharitoa bota eta 5 hilabetera bildotsak jaio

- **Erref**: MAN-022/012
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:21:42. **Bukatu**: 00:22:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardiekin basoan egoten ziren martxotik Gabonak arte. Ardiari aharitoa bere aitak irailean, San Migel inguruan, botatzen zion; handik 5 hilabetera bildotsak jaiotzen ziren.

7. Artzain ardi txakur barik

- **Erref**: MAN-022/013
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:22:58. **Bukatu**: 00:24:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Umea zela, ez zuten ardi txakurrik. Bera gaztea zela izan zuten ardiak zaintzeko txakur bakarra. Artzain askok ez zuten txakurrik erabiltzen, Mañaria inguruan oso gutxik.

8. Ez zegoen azeririk ez belarik

- **Erref**: MAN-022/015
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:25:31. **Bukatu**: 00:27:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak
- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ez zuten azeririk ezagutu inguruetan. Eskobaratz izeneko lekuan harrapatu zuten inguruetako lehena. Belak ere mendian zeuden, Mugarra inguruko kobetan. Ardiek ez zuten izaten inongo arriskurik gaur egun bezala. Lehen basoan hildako ardiak ez ziren erretiratzen, saiek (putreek) jaten zituzten.

9. Basora esnea batzen

- **Erref**: MAN-022/016
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:27:00. **Bukatu**: 00:28:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardiak bildotsak jaiotzerakoan etxean egoten ziren. Gero basora joan behar izaten zuten esnea batzen, goizez eta arratsaldez. Beraiek astoz joaten ziren, baina beraien aitak-eta lepoan eramaten zuten. Ardiak solte egoten ziren, haitz inguruetan; etxekoen lurretan zein besteenetan egoten ziren.

10. Bildotsak Durangoko plazan sagai

- **Erref**: MAN-022/017
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:28:29. **Bukatu**: 00:29:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Bildotsak Durangoko plazan saltzen zituzten. Bizirik eroaten ziren astoz. Harakinek hiltzen zituzten gero. Mañarian ere bazeuden hiltegia eta harakina.

11. Ardiak markatuta

- **Erref**: MAN-022/019
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:30:44. **Bukatu**: 00:32:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardiei belarria markatzen zieten. Era desberdinak zeuden eta bakoitzak bere marka zuen. Sekula ez zituzten nahasten.

12. Ardiek apatx gogorragoak zituzten

- **Erref**: MAN-022/020
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:32:14. **Bukatu**: 00:33:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Lehengo ardiek apatxak gogorragoak izaten zituzten. Apatxetarako harri berdea izeneko ematen zieten.

13. Ahari-topekak

- **Erref**: MAN-022/021
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:33:22. **Bukatu**: 00:34:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Mañarian makina bat ahari-topeka egiten ziren. Atutxa izeneko batek askotan antolatzen zituen frontoi zaharrean. Kanpotik ere etortzen ziren.

14. Gazta egiteko prozesua

- **Erref**: MAN-022/024
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:36:05. **Bukatu**: 00:38:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:
Ardi-esneagaz gazta egin eta saldu egiten zuten. Gazta zelan egiten zuten azaltzen du pausuz pausu.

15. Legarra haizeagaz sikatu

- **Erref**: MAN-022/025
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:38:02. **Bukatu**: 00:39:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gazta egiteko bildotsaren legarra landu eta sikatu egiten zen. Legarra kanpoan uzten zuten sikatzen.

16. Gatzura kendu eta ontzen utzi

- **Erref**: MAN-022/026
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:39:00. **Bukatu**: 00:41:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gaztaren gatzura ganaduari ematen zien. Gazta ontzeko eta gogortzeko gatzura kendu eta moldeetan uzten zuten sikatzen pare bat egunez. Gazta txikitxuak egiten zituzten.

17. Gazta ondo sikatu ez arrakaltzeko

- **Erref**: MAN-022/027
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:41:10. **Bukatu**: 00:43:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:
Gaztak haizearekin sikatzen ziren, leihoak eta ateak zabalduta. Hego haizeagaz edo gutxi sikatuz gero, zabaldu eta arrakaldu egiten ziren. Behintzat hilabetez izaten zuten sikatzen saldu aurretik. Haize asko bazegoen lehenago sikatzen zen eta lehenago horitzen zen.

18. Gazta egiteko esne kopurua

- **Erref**: MAN-022/028
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:43:36. **Bukatu**: 00:45:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Gazta ur epeletan garbitzen zuten saltzeko. Gaztaren tamainaren arabera erabilitako esne kopurua desberdina da. 3-4 litro behar izaten zituzten txikirako eta 6 bat handia egiteko beraienean txikiak egiten ziren. Amak saltzen zituen Durangoko plazan. Ez zuten ahuntz- edo behi-esnearen gaztarik egiten; agian behiak esne asko izanez gero ardiarenarekin nahasten zuten.

19. Lanik ez zuena eskean edo lapurretan

- **Erref**: MAN-027/005
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:05:15. **Bukatu**: 00:06:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Garai batean ez zegoen erretirotik eta hil arte lan egiten zen. Lanik ez zuenak ez zuen diru-iturririk eta jendea txarto ibiltzen zen. Eskeko asko ibiltzen ziren eta ijitoak ere bai. Kaleko jendeak gauez jatekoa lapurtzen zuen.

20. Gabino Arana maisua

- **Erref**: MAN-027/007
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:13:52. **Bukatu**: 00:15:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Gabino Arana maisua. Bi seme zituen. Herriko idazkari lana ere egiten zuen. Istripua izan zuen motoarekin Iurretara bidean. Hura erretiratu zenean, beste nafar bat etorri zen: Aranburu.

21. Aitaren poltsikoko erlojua

- **Erref**: MAN-027/011
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:22:44. **Bukatu**: 00:24:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aitita eta aita biak dantzazaleak ziren. Orduan irratian musikarik ez zen egoten ia. Jaietan txistulariak. Goizean zain egoten zen, zer ordu zen jakiteko. Poltsikoko erlojua erabiltzen zuen. Behin galdu egin zitzaion eta sekulakoak egin ei zituen bila.

22. Autobusak Gasteizera eta Durangora

- **Erref**: MAN-027/013
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:27:08. **Bukatu**: 00:28:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:
Aita batzuetan Gasteizera joaten zen osabarengana. Autobusa egoten zen Durangotik. Autobusak postariaren lana egiten zuen. Domeka iluntzeetan autobusa joaten zen Mañarira, jendea Durangora eramateko. Osaba bera ere sarri etortzen zen Mañarira.

23. Emakumeak josten ikastera edo neskame

- **Erref**: MAN-027/023
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:43:42. **Bukatu**: 00:44:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Garai bateko emakumeak josten ikastera joaten ziren. Dirua ateratzeko, berriz, neskame.

24. Aste Santuko prozesioen ibilbidea; enkantea

- **Erref**: MAN-027/025
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:58:54. **Bukatu**: 01:01:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Aste Santuko prozesioak nondik nora egiten ziren. Prozesioan eraman beharrekoak enkantean jartzen ziren Erramu egunean. Aureliok eta lagunak gurutzetxo bana hartzen zuten. Gero, prozesioan ortozik joan behar. Bekorotzak zapalduta laguna maldizioka ibili zeneko kontuak.

25. Ekaitza zetorrelako prozesiotik arineketan alde

- **Erref**: MAN-027/027
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:01:44. **Bukatu**: 01:03:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Aste Santuko prozesioak. Behin ekaitza zetorrela eta batzuek alde egin zuten arineketan, santuak eta bestelakoak bertan lagata, eta besteak busti-busti eginda geratu ziren. Aurelio eta laguna beti bihurrikerietarako prest.

26. Elizako pulpitua sermoietarako

- **Erref**: MAN-027/031
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:07:27. **Bukatu**: 01:09:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:
Elizako pulpitua meza erdiko sermoia egiteko erabiltzen zen. Egun berezietan (Gorpuzti egunean, adibidez) kanpoko abadeak edo fraideak etortzen ziren eta haiek ere pulpitutik. Arrosarioa ere bertatik errezatzen zen. Garai batean Ama birjinari ematen zitzaion indar handia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com